

Startinnova II - Merkatuaren segmentazioa

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun.

Gure zerbitzuak edozein motatako pertsoneri zuzenduta daude, batez ere gazteei; izan ere, kontzentrazio-espazio bat behar duten gehiengoak dira, ikasi ahal izateko eta behar bezala lan egiteko.

Eskainitako zerbitzua Gasteizko erdigunean dago, horren ondorioz, gune jendetsua izango da. Kafetegiaren ezaugarriak adin eta gustu guztiei zuzenduta daude, hainbat edari eta elikagai eskainiko baitira. Era berean, bezero bakoitzaren beharrak ere kontuan hartuko ditugu, Gasteizek ez baitu luxuzko gune askorik bezeroek zerbitzuaren eta elikagaien kalitatea ikusteko.

Halaber, irakurzaleak nahiko bezero garrantzitsuak dira gure negozioan; izan ere, irakurketa-klubak eta eztabaidak egingo dituzte, eta horrek bereizten gaitu beste enpresetatik. Gure zerbitzuak aukeratzen dituzten pertsonen eztabaidarako gaitasunak areagotu nahi izango dituzte; hau da, haren pentsamendu kritikoa.



Beraz, argi dago bezeroa dela enpresaren jardueraren erdigunea, eta eredu horrek ematen diola enpresa-etekina, eta haren ezaugarriak hartu beharko direla kontuan, bezeroen beharrak bilatzen ditugunean.

